

# Oiartzungo XXVI.



Rosa eta



Poesia



LEHIAKETA 2013



Oiartzungo XXVI. Prosa eta Poesia lehiaketa  
**2013**



# Sarrera

---

*Oiartzuar agurgarriok!*

*Esku artean dugu urtero bezala XVI. Prosa ta Poesiako literatur lanen bilduma. Hogeita seigarrenez, kontakizun eta poema ederrak idatzi dituzte herriko haur eta gaztetxoek. Hizkuntzarekin jolas eginez, lan alaiak, abenturazkoak, erromantikoak, tristeak, umoretsuak... denetariko lanekin gozatzeko aukera dugu.*

*Ez du edonork literatura ona idazten. Idazten abilena denak ere, zirriborro bat baino gehiago egingo zuen behin betiko lana bukatzea lortu aurretik. Irudimena martxan jarri, pentsatu, asmatu eta hitzak elkarri lotuz istorioak zein poemak orri zurian idatzi behar dira. Sormen lan handia dago atzean. Zoritxarrez, lan asko bildumatik kanpo geratu dira, baina gogoa eta ilusioa jarri eta ahalegina egin duzuen guztioi eskerrak eman nahiko nizkizueke.*

*Eskerrak ematen jarraituz, ezin ahaztu bidelagun izan dituzuen irakasleak eta aurkeztutako lanak epaitzen ibili diren kideak ere. Ez zen lan samurra izango!*

*Oiartzungo udalaren izenean, zorionak esku artean duzuen posible egin duzuen guztioi. Goza ezazue!*

**Irati Etxebeste Madariaga**

Euskara Zinegotzia

© Oiartzungo Udala

Lege gordailua: SS-462-2013

Fotokonposaketa eta inprimaketa: Antza komunikazio grafikoa



Oiartzungo Prosa eta Poesia Lehiaketaren 2013ko saridunak

**2013ko epaimahaikideak:**

**Pello Añorga**, Ipuin kontalaria

**Goiatz Labandibar**, Kazetaria eta idazlea

**Antton Kazabon**, Idazlea, irakaslea

**Aingeru Palomo**, Irakaslea

**Iñaki Arbelaitz**, Oiartzun irrati kolaboratzailea

**Sohalge Arbelaitz**, Irakaslea

**Imanol Irigoien**, Poeta eta margolaria

**Intxixu AEK euskaltegia**

**Ttur-ttur Euskaltzaleon Bilgunea**

**Lehendakaria:** Irati Etxebeste Madariaga (Euskara Zinegotzia)

**Idazkaria:** Aitziber Arnaiz Garmendia (Euskara Teknikaria)

**Zuzenketak:** Arkaitz Goikoetxea Arriola

# 2013ko saridunak

---

Saila	Maila	Prosa	Poesia
<b>1. saila</b>	LH 3	Haitz Aranburu Mutiloa <i>ARDI OTSOJALEA</i>	
		Maialen Leiza Diaz <i>KATU-BELTZ</i>	
<b>2. saila</b>	LH 4	Xabat Olaiz Etxeberria <i>MARKEL ETA ETXE MAMUA</i>	
		Janire Jacome Legorburu <i>GELA GORRAREN MISTERIOA</i>	
<b>3. saila</b>	LH 5-6	Maren Elizetxea Castiñeira <i>KOLORERIK GABEKO OSTADARRA</i>	Izaro Telletxea Delgado <i>NIRE ESKUA ZUREAN</i>
		June Imaz Irastorza <i>ALTXOR MISTERIOTSUA</i>	Katixa Oiarzabal Maisterrena <i>LAINOA</i>
<b>4. saila</b>	DBH 1-2	Unai Garayar Urkizu <i>MARINELAREN ZAIN</i>	Beñat Retegi Artola <i>UME BAHITUAREN IRRIA</i>
		Haitz Iriondo Gaztelumendi <i>UMEZURTZAK KASUAN SARTUTA</i>	Izar Susperregi Garmendia <i>IRRIBARREZ, GERO MINEZ, ERAGI DIDAZU NEGARRA</i>
<b>5. saila</b>	DBH 3-4	Jokin Irastortza Zabalegi <i>ZUMARDIREN BIDEKIK</i>	Jokin Irastortza Zabalegi <i>ITZULIKO ZAREN ESPERANTZAN</i>
		Paul San Sebastian <i>BIRRAITONAREN HISTORIA</i>	Ane Lizarraga Etxeberria <i>DESBERDINAK BAINA BERDINAK</i>
<b>6. saila</b>	16-18 urte	Haizea Saez de Eguilaz Perez <i>PANPINEN BI AURPEGIAK</i>	Karen Muñoz Etxebeste <i>TESTIGANTZA BELTZA</i>
		Ilargi Aristondo Merino <i>ZU BILATU NAHIAN</i>	Haizea Saez de Eguilaz Perez <i>EZKUTUKO ARGIAK</i>



# Aurkibidea

---

## **Prosa**

<i>Ardi otsojalea</i>	12
<i>Katu-beltz</i>	13
<i>Markel eta etxe mamua</i>	14
<i>Gela gorraren misterioa</i>	15
<i>Kolorerik gabeko ostadarra</i>	17
<i>Altxor misteriotsua</i>	18
<i>Marinelaren zain</i>	19
<i>Umezurtzak kasuan sartuta</i>	21
<i>Zumardien bidetik</i>	24
<i>Birraitonaren historia</i>	27
<i>Panpinen bi aurpegiak</i>	29

## **Poesia**

<i>Nire eskua zurean</i>	41
<i>Lainoa</i>	42
<i>Ume bahituaren irria</i>	43
<i>Irribarrez, gero minez, eragin didazu negarra</i>	45
<i>Itzuliko zaren esperantzaz</i>	47
<i>Desberdinak, baina berdinak</i>	49
<i>Testigantza beltza</i>	51
<i>Ezkutuko argiak</i>	53



# *Prosa*

Oiartzungo XXVI. Prosa eta Poesia lehiaketa

**2013**



**Haitz Aranburu Mutiloa**

**1. SAILA**

PROSA

---

## *Ardi otsojalea*

Bazen behin, bost ardiko artalde bat. Lehenengoak Koxme izena zuen. Ile asko eta hanka motzak zituen. Bigarrenak Aker izena zuen. Adar handi kiri-bilduak zituen eta buztan motzekoa zen.

Hirugarrenak Txuri izena zuen. Elurra baino zuriagoa zen eta hanka luzeak zituen. Laugarrenak Beltz zuen izena. Ile beltza eta begi urdinak zituen. Bosgarrenak eta azkenak Marroi izena zuen. Baratzeko lurra baino marroriagoa zen eta isats luzea zuen.

Bat-batean, otsoa agertu zen. Ardi guztiak jan behar zituenean, pixka bat itxaroteko esan zioten ardiek:

-Itxaron! Mesedez eskatzen dizugu!

-Ez! Ez dizuet itxarongo!

-A bai, ba ikusiko duzu! Ez badiguzu itxaroten, ikusiko duzu! -esan zion Akerrek otsoari, baina otsoak ez zion kasurik egin. Lehenik Koxme jan zuen. Ondoren Txuri, gero Beltz. Horren ostean, Marroi eta, azkenik, Aker jan behar zuenean, otsoak ahozuloa zabalik zuela, zer da eta ardiak otsoa jan zuen. Orduan bai bakea. Hura lasaitua hartu zuena Akerrek.

Handik aurrera, bakar-bakarrik bizi izan zen Aker. Triste zegoen, otsoak bere lagunak jan zituelako.

Baina lagun berriak egin zituen: urtxintxa, satorra, txakur bat eta tximeleta. Horregatik, tristura joan eta pozik bizi izan zen handik aurrera Aker.

---

*Belazti*



**Maialen Leiza Irazusta**

**1. SAILA**

PROSA

---

## *Katu-beltz*

Bazen behin Katu-beltz izena zuen katu beltz bat. Baserri batean bizi zen bere familiarekin. Katu-beltz beltz-beltza zen. Bere familian kolore askotakoak ziren. Ama gorria, urdina eta zuria, aita, berriz, berdea, arrosa eta grisa.

Katu-beltzek kolore askotakoa izan nahi zuen eta bere lagun elefanteak esan zion:

-Urruti-urruti bizi da gizon bat katuak margotzen dituen eta artista bat da!!

Orduan Katu-beltz etxafuego bat baino azkarrago joan zen etxera eta amari gertatutakoa kontatu zion. Amak motxila prestatu, eta Katu-beltz hantxe abiatu zen motxila bizkarrean.

Mendiak gora, mendiak behera, azkenean gaua iritsi zen arte.

-Kobazulo honetan sartuko naiz eta ogi pixka bat jango dut -pentsatu zuen bere baitan.

Hurrengo egunean urruti-urrutian ortzadarra baino kolore gehiago zituenean etxea ikusi zuen, eta hara inguratu zenean, atea jo zuen. Ipotxa baino gizon txikiago batek atea ireki eta gizonak sartzeko esan zion. Katu-beltz mahai baten gainean jarri zen. Orduan artista etorri eta gorputzeko atal guztiak margotu zizkion. Bukatutakoan Katu-beltz etxera itzuli zen.

Handik egun batzuetara, Katu-beltz bere lehengusuekin jolasten zebilela, euria hasi zuen eta kolore guztiak joan zitzaizkion.

Bere lehengusuek esan zioten:

-Katu-beltz, kolore guztiak joaten ari zaizkizu eta berriro beltza zara.

-Ni naizen bezalakoa naiz eta onartu egingo dut.

Geroztik zorientsuago bizi izan zen.

---

*Nelaiam*



**Xabat Olaiz Echeverria**

## **2. SAILA**

*PROSA*

---

### *Markel eta etxe mamua*

Bazen behin Markel izeneko mutiko bat, arduratsua, lagun ona eta pixka bat beldurtia zena. Kolore laranja gustatzen zitzaion.

Egun batean, bere lagunak jolastera gonbidatu zuten. Eta Markelek hone-laxe erantzun zien:

- Bale! Baina zertan ibiliko gara?

Eta hauxe erantzun zioten:

- Futbolean.

Futbolean ibiltzera joan ziren eta Jon bere lagunak baloia indartsu jaurti zuen. Etxe mamua esaten dioten etxeko ganbarara joan zen baloia. Markelek pentsatu zuen bere baitan:

- A zer-nolako jaurtiketa!

Eta Jonek esan zuen:

- Zoaz baloiaren bila, Markel!

Markelek, txintik ere esan gabe eta izuaren izuz, atea ireki zuen eta aurrean txakur maitagarri bat atera zen. Txakurrak bere hezurra galdu zuen. Orduan Markel adoretzu sentitu zen, eta hau esan zuen:

- Baloia eta hezurra, biekin aterako naiz!!!

Etxera sartu, ganbarara igo eta baloia eta hezurra hartu zituenean, hain azkar atera zen, mamu batek ere ezin izan zuen geldiarazi.

Egun hartatik aurrera ez zuen beldurrik izan, eta baloia hara joaten zenean, beti berak hartzen zuen. Eta txakur horren laguna egin zen. Baina bere kolore gogokoena ez zen aldatu. Laranja izaten jarraitu zuen.

---

*Siux*



**Janire Jacome Legorburu**

**2. SAILA**

PROSA

---

## *Gela gorraren misterioa*

Ipuin honetan bi protagonista daude: Oier eta Ane. Biek dituzte 15 urte, eta gela berekoak dira. Istorio hau 2007an gertatu zen, abenduaren 8an.

Egun hartan, Oier eta Ane ikastolan zeuden. Matematika zuten eta biderketen proba egin behar zuten. Bat-batean, andereñoak esan zuen:

- Denbora agortu da. Ekarri proba.

Denek proba andereñoaren mahaira eraman zuten. Eta Oierrek esan zion Aneri:

- Seguru denak ongi ditudala.

Eta Anek erantzun zion:

- Ez egon hain seguru, agian denak gaizki dituzu eta.

Lagun oso onak ziren biak, eta sekretu guztiak batak besteari kontatzen zizkieten. Andereñoak esan zuen:

- Zuzendu ditut probak. Zuk, Oier, triste utzi nauzu. Zero bat duzu!!!!

- Ezin du izan! –esan zuen Oierrek.

- Esan dizut –esan zion Anek.

- Ja, ja, ja, dena gaizki! –esan zion Gaizkak, burla moduan.

Masailak tomateak bezain gorriak zituela erantzun zion:

- Ez egin barre, zuk okerrago egiten duzu eta!

Gorritu egin zen Gaizka.

- Ez da egia! –esan zion.

- Bai, hala da!

- Ez, gezurti!
- Ez, "atontao"!
- "Atontao" zu!
- Ez, zu!
- Ez, zu!

Eta biek batera esan zuten:

- EZ, ZU!!!!

Ikastola osoan entzun zen beren oihua, baina gela batean ez.

Gizon zahar bat sartu zen haien gelan eta eskutitz bat utzi zuen Oierren mahaian, eta beste bat Anerenean. Oierrean jartzen zuten: "Oier detekti-bea, kasu bat daukat zuretzat. Ezin dizut esan zein naizen, baina bai zer nahi dudan. LHko 6B gelara joan eta han pista bat aurkituko duzu. Aneri zurekin joateko esan. ZORTE ON!".

- Ane, Ane! Begira zer dudan!
- Bai, nik ere badut, Oier! Goazen biok elkarrekin kasua argitzera!
- Bai. Azkar!

LHko 6B gelara joan ziren. Dena armiarma sarek betea zegoen.

- Ane, begira! – esan zuen Oierrek.
- Paper bat! – esan zuen Anek.

Oierrek papera irakurri zuen: "Kaixo bikote, DBHko 4A gelara joan. Han aurkituko duzue misterio honen azken geltokia. Bilatu pistak, eta jakingo duzue zergatik DBHko 4A gelan ez den zuen oihua entzun".

DBHko 4A gelara iritsi ziren, eta azken papera aurkitu zuten. Anek irakurri egin zuen: "Hemen bilatu behar duzue misterioaren bukaera. Bilatu paretan zerbait, eta misterioa argituko duzue".

Biek pareta begiratu zuten, eta geruza bat zuten. Geruza horri esker, ez zen oihua entzun.

Beren gelara bueltatu ziren. Ez zen inoiz gehiago etorri aitona zahar hura. Eta beren haurrek, eta beren haurren haurrek ere, familiako istorioa zekiten.

---

*Sorgin*





**Maren Elizetxea Castiñeira**

### **3. SAILA**

PROSA

---

## *Kolorerik gabeko ostadarra*

Orain dela urte asko eta asko, Afrikako sabanan, Kenyan, istorio hau gertatu zen. Kenya oso lurralde lehorra da, oso zuhaitz gutxi daude eta daudenak nahiko kaxkarrak dira. Hala ere, animalia asko bizi dira: elefanteak bere belarri handiekin; zebrak, preso- pijamekin; jirafa lepo luzeak...

Badago gauza bat sabanako animalia guztiei gustatzen zaiena: paisaia marroi horretan ostadarra ikustea. Ostadarrak kolorez margotzen du sabana osoa.

Ostadarra oso lanpeturik zebilen hainbat herrialde bisitatu behar zuelako: Euskal Herria, Frantzia, Amerika... Egun batean abisua iritsi zitzaion: Afrika-ra joan behar zuen. Eta hara abiatu zen, baina iritsi zenean, konturatu zen dena bustita zegoela, euria goitik behera ari zuen etengabe eta animaliak oso urduri zeuden, uholdeak hasiak baitziren. Denak alde batetik bestera ari ziren babes bila. Sabanako errege familiak babeslekurik onenak hartu zituen: zuhaitz handienak; tximinoak zuhaitz adaretara igo ziren eta hipopotamoak eta krokodiloak ur azpian sartu ziren. Gainontzeko animaliak babeslekurik gabe geratu ziren. Ostadarrak, egoera larria ikustean, laguntzea erabaki zuen. Ahal izan zuen guztia zabaldu zen, eta sabana osoa estali eta bertako animaliak babestu zituen. Euriteak ordu asko iraun zuen eta, horren ondorioz, ostadarrak koloreak galdu zituen, eta horiekin batera, alaitasuna. Animaliek, ostadarra nola zegoen ikusirik, eta egindakoa eskertzeko, familia bakoitzeko norbaitek bere kolorea emango ziola adostu zuten. Horregatik, animalia batzuk albinoak dira.

---

Izar



**June Imaz Irastorza**

### **3. SAILA**

PROSA

---

## *Altxor misteriotsua*

Orain dela urte batzuk nire amonak kontatu zidan istorioa da hau. Ni txikia nintzela gertatu zen. Nire herrian bazeuden hiru anai-arreba Tadeus, Granate eta Kati izenekoak. Tadeus txikia zen, Granatek hizkuntza guztietan hitz egiten zekien eta Katik oso ondo irakurtzen zuen. Ordiziako mendi eder batean bizi ziren, erreka polit baten ondoan.

Egun batean, Tadeusek kobazulo misteriotsu bat aurkitu zuen. Kobazulo hori beltza eta beldurgarria zen. Oso harrigarria iruditu zitzaionez, Katiri eta Granateri abisatu zien. Sartu eta Egiptoko papiroak aurkitu zituzten. Papiroak zahar-zaharrak ziren eta haien ondoan ate magiko bat zegoen. Hura ere oso zaharra zen. Granate deszifratzen saiatu zen, baina mareatu egin zen, hauts magiko baten ondorioz. Hauts hori arrosa zen eta papiroetatik atera zen. Granate altxatu zutenean, giltza bat aurkitu zuten haren azpian. Giltza hartu eta hiru anai-arrebek emozio handiz giltza atean sartu zuten.

Altxor misteriotsu bat ikusi zuten. Zirrara handiz ireki zutenean, ez zuten horrelakorik espero. Altxorrak barruan ez zeukan dirurik, ileordeak, mozo-  
rroak, kareta oso dibertigarriak eta liburu pila bat baizik. Gezurra zirudien, baina liburu horietako pertsonaiak beraiek ziren!!! Harrigarria izan zen. Gustura irakurri zituzten liburuak mozo-  
rroak jantziak zituztela, antzerkia eginez. Aspertu zirenean, altxorra kobazulora bueltatu zuten, beste pertsona batzuk sartzen baziren, beraiek bezala gozatzeko.

---

*Izurdetxo*



**Unai Garayar Urkizu**

**4. SAILA**

PROSA

---

## *Marinelaren zain*

Baziren behin bi gazte, Orioko herrian bizi zirenak. Niko eta Haizea zuten izena eta elkar asko maite zuten, baina beren aiten ezin ikusiak ezinezkoa egiten zuen beren arteko maitasuna. Niko mutil gaztea zen, izan ere, 23 urte besterik ez zituen. Marinela zen eta bere begiak itsasoa bezalakoak ziren, urdin-urdinak. Ile horia zuen eta nahiko argala zen. Haizea, berriz, 20 urteko neskatxa zen. Begiak berdeak zituen eta ilea gaztaina kolorekoa. Ezkutuka elkartzen ziren, beren aitek ikus ez zitzaten. Gehienetan, herriko itsasargian elkartu ohi ziren, oso toki lasaia baitzen, itsasoaren edertasuna ikusteko toki paregabea. Bertan, kaioen hotsa eta olatuen talkak besterik ez zen entzuten, itsaslabarraren aurka jotzen zutenean. Itsasargian aitona zahar bat bizi zen, hura ere marinel izandakoa. Niko Haizea baino lehen iritsi ohi zen itsasargira. Egun haietan, aitona horrek gauza asko kontatu ohi zizkion Nikori: bizitako abentura kitzikagarrienak, txikia zela aitari nola lagundu zion itsasargia eraikitzen... Egun haietako batean, gauza harrigarri bat kontatu zion: 1905. urtean itsasoratu zen bere kapitainaren agindupean. Ternua aldera joan nahi zuten eta harako bidean, atuna, hegaluzea eta abar harrapatu. Bidean, arrainak ikusi omen zituen ihesean. Handik egun gutxitara, ekaitz batean zeuden. Berak eta beste bi lagunek bakarrik lortu zuten bizirik irautea. Egun hartantxe, hauxe esan zion Nikoren aitak bere semeari etxeratzean:

- Niko! –oihukatu zuen–. Jada gizondu haiz. Iritsi duk itsasoratzeko tenorea.
- Bai, aita –erantzun zion Nikok, bere aitaren oihuaz beldurturik.
- Ondo. Orduan bihar bertan itsasoratuko haiz.
- Bihar?

- Bai, bihar.

- Baina ...

- Ixo! Ez zegok ezer esatekorik. Nik esana egingo duk.

Burua altxatzean, hantxe ikusi zuen bere ama, ateko zirrikitu batetik begira, aurpegia malkoz beterik zuela. Ez zen harritzekoa, izan ere, hiru semeen artean Niko zuen semerik kuttunena. Aita mahaiian eseri zela ikustean, Niko ziztu bizian irten zen etxetik Haizearen bila. Zerua garbi-garbi zegoen eta eguzkiaren azken izpiak ikus zitezkeen. Haizea ez zen berandu arte etxeratzen, eta bazekien non aurkituko zuen. Iritsi zenean, hantxe ikusi zuen, hondartzako hondar zurian eserita. Ez zuen ondo hartu berria eta negar malkotan etxera joan zen lasterka. Bera hantxe gelditu zen beste pixka batean, izarren distirari behatuz.

Hurrengo egunean, eguna argitu baino lehen itsasargira joan zen. Bazekien Haizea han egongo zela, senak hala esaten zion. Iritsi zenean, hantxe ikusi zuen, eserita, negar totelka. Bere begi berdeak malkoak isurtzen ikustea ez zitzaion batere gustatzen eta berari ere tristura sartzen zitzaion. Haren alboan eseri zen eta zapi batekin malkoak lehortu zizkion:

- Lasai egon zaitez. Itzuliko naiz.

- Zain izango nauzu.

- Itxaron iezadazu hemen.


- Ongi da.

Besarkada handi batekin elkar agurtu zuten.

Egun hartatik aurrera Haizeak ez zuen Nikoren berririk izan baina jendeak dioenez, oraindik han dago, itsasargian, bere marinel kuttuna noiz itzuliko zain.

---

*Dartañan*



**Haitz Iriondo Gaztelumendi**

**4. SAILA**

PROSA

---

## *Umezurtzak kasuan sartuta*

Baziren Londresen bost umezurtz, Londresko estoldetan bizi zirenak. Kozak hamabost urte zituen, adoretsua eta jakintsua zen. Patrik indartsua zen baina ez oso adoretsua. Honek ere hamabost urte zituen. Sina azkarra eta gezurrak esaten abila zen. Hamalau urte zituen. Kevin gazteena zen, hamabi urterekin. Neskazalea eta korrika egiterakoan oso azkarra zen. Baita bihurria ere. Niki ere buru argiko neska zen. Hamalau urte zituen.

Estoldetan bizi zirenez, ez zuten jatekorik, janztekorik... Lapurretan ibiltzen ziren.

Gau batean Koza eta Patrik museo inguruan paseatzen ari zirela bi gizon ikusi zituzten British museumean, aurreko egunetan aurkitutako momia lapurtzen. 200.000000 £ balio zuen. Koza eta Patrik korrika estoldan sartu ziren, beren estoldetako etxera joateko. Etxean zirela, besteei kontatu zieten gertatutakoa.

Hurrengo egunean, gosaldu ondoren, Kevin, Sina eta Niki periodikoa lapurtzera joan ziren, aurreko eguneko gertaeraren berri zerbait aipatzen zuen ikustera. Periodikoa esku artean zutela, azaleko albistean jartzen zuen:

British Museumean momia berria lapurtua. Diru saria lapurren truke.

Hiru gazteak korrika joan ziren Koza eta Patrikengana, periodikoa erakustera. Hauek ideia bat izan zuten: lapurrak harrapatzea diru saria lortzeko.

- Hauxe da plana –esan zuen Kozak–. Lehenengo, lapurrak zein diren jakin behar dugu; gero, estoldetara erakarriko ditugu eta, azkenik, gure tranpetan harrapatuko ditugu.

Gazte guztiak kanpora atera ziren pisten bila. Kevinek neska batzuk ikusi zituen eta haien atzetik abiatu zen, galdu zen arte. Geroxeago bi gizon ikusi

zituen. Batek berrogeita hamabost urte inguru zituen eta besteari aginduak ematen zizkion. Bestea gazteagoa, berrogei urte inguruko gizon gihartsua zen eta oihal artean bildutako objektu pisutsua zeraman. Kevinek jarraitu egin zien eta etxe batean sartzen ikusi zituen.

Etxerako bidea denbora batez bilatu ondoren, hara joan zen eta itxaroten gelditu zen lagunak noiz etorriko zain. Besteak etorri bezain laster, eta urduritasun eta emozioz beterik, ikusitakoa kontatu zien. Lapurrak erakartzera Koza joango zela adostu zuten, besteak tranpak prestatzen gelditzen ziren bitartean.

Koza bere eginbeharra betetzera joan zen, Kevinek esandako lekura. Etxe hartako leihoan argia ikusi zuen. Leiho ondotik pasatzen zen hodia erabiliz, gora egin zuen leiho parera iritsi arte. Barruan, Kevinek deskribatutako ezau-garriak zituzten bi gizon ikusi zituen. Ondoan, sarkofago handi bat zuten. Lapurrak erakartzeko, leihoa kolpetik ireki eta hauxe oihukatu zuen Kozak:

- Lapurrak!!! Lapurrak!!!

Bi lapurrak izutu eta leihora hurbildu ziren. Orduan Koza jaitsi eta korrika hasi zen. Lapurrak haren atzetik zihoazen, berak nahi bezala. Ederki ezagutzen zuen estoldan sartu zen, eta lapurrak atzetik. Kozak tranpa saltatu zuen baina lapurrak ez, eta sare batean bilduta geratu ziren, harrapatuta.

Gazteek lapurren zorte txarra ospatzen zuten bitartean, lapurretako batek labanaz sarea moztu zuen. Orduan, ordaina eman nahirik, bost gazteen atzetik abiatu ziren bi lapurrak.

Estoldetatik kanpo atera ziren eta korrika jarraitu zuten. Sina eta Niki multzotik banandu eta ondoko kalean zihoazela, polizia auto bat ikusi zuten. Haiengana hurbildu eta, gainera gertatutakoa kontatu ondoren, laguntza eskatu zieten. Autora igo eta gainontzekoek hartu zuten norabidea jarraitzeko esan zieten. Bitartean, polizia bere lankideei laguntza eskatu zieten.

Patrik, Kevin, Koza eta atzetik segika zituzten lapurrak polizia auto inguratuta geratu ziren. Poliziek lapurrak atzeman zituzten, eta orduan, White izeneko detektibea, Sina eta Niki urreratu zitzaizkien.

- Zuek umezurtzak zarete eta diru saria nahi zenuten, ezta? –esan zuen Whitek-. Ba, ez duzue lortu, poliziek harrapatu baitituzte. Baina, nahi izanez gero, zerbait hobea lor dezakezue.


- Zer? –galdetu zuten gazteek.

- Ba, nirekin bizi eta eskolara joan. Nik asko maite ditut umeak eta ez dut bat bakarrik ere; beraz, nahi baduzue...

Gazteek, bakarka bildu eta egoera aztertu ostean, baiezkoa eman zioten detektibeari. Aurrerantzean, elkarrekin eta tripa beti beteta, zoriontsu bizi izan ziren.

---

*Kevin*



**Jokin Irastortza Zabalegi**

**5. SAILA**

PROSA

---

## *Zumardien bidetik*

**1973ko irailaren 11,**

Giro ustela egin du gaur, eta txamarra gainetik kendu gabe bili behar izan dut. Eskua lepora eraman eta jaka jaso dut, belarriak tapatzeraino. La Moreda jauregiaren aurretik igarotzerakoan Montecristo puru bat piztu dut, arnas-hartze luze baten ondorengo kezko eraztun ilunak sortu aitzin. Di-da batean eraman ditu handik haize fresko sarkorrak. Euria hasi du une batez eta hotza hezurretaraino sartu zait. Karabinero batek begirada zolia bota dit, eta pauso urduriz aldendu naiz bertatik, badaezpada ere. Jakingo balu gertatzeaz dena...

Aldean neramatzan txanpon urriekin taxi bat hartu dut. Tres Alamos kuartelaren aurreko tabernaren helbidea eman diot. Behin tabernan, ron zuri basokada bat eskatu diot zerbitzariari, denbora astuna ke, pentsamendu eta ron artean ito nahirik. Azkenean, gerturatu da ordua. Arin kalea zeharkatu eta berehala sartu naiz kuartelera. Laster ezagutuko dute txiletar guztiek, bai!

*"Jakin ezazue, berandu baino lehen, zumardi handiak berriro irekiko direla, eta handik pasatuko dela gizaki librea, gizarte hobea eraikitzeko".*

Salvador Allenderen azken hitzak izan dira bulegoko mahai txikiko irrati beltzak eskaini dizkigunak. Tiradera ireki eta eguneko bigarren Montecristoa hartu dut, nire bakardadean lagun bakar. Segituan berotu da leiho txikienik ere ez duen gelaxkoko giroa.

Bonba-hotsak entzun dira jarraian, garrasiak ondoren; pausoak eta negar-zotinak, handik pixka batera, pasabideetan zehar; mehatxuak, irainak, eta paretari emandako kolpeak ere bai.



### **1973ko irailaren 15a,**

Tres Alamos guztiontzat da torturatzaille, salbuespenik gabe. Goizean goiz iristen dira lehen karabinero-autoak preso z beteta, eta egun osoko infernua bihurtzen da.

Oso ohikoak dira fusilatze-simulatzeak hemen. *“Zutik! Paretaren kontra!”*, *agintzen zaie presoek. “Hiru arte zenbatutakoan bota zuen gorputzak lurrera! Bat... bi... eta hiru!”*. Tiro hots gogor eta lehor batek astintzen ditu inguruak. Batzuk berriz altxatzen dira; batzuk baino ez.

Ikuskizun negargarria da, zinez, hemengoak: jendea odoletan, haurrak negarrez, mehatxuak, irainak, oihiak, tiroak...

### **1973ko irailaren 18a,**

Hemen ikusten dena gogorra dela ohartu arren, erraz ahazten ditut kasuak, joan eta etorri egiten dira tristura eta minak. Gaurkoa, aldiz, oso ezberdina izan da. Benetan hunkitu nau gaurkoak.

MIR, Ezker Iraultzailearen Mugimendua, babesten eta laguntzen omen duen hamasei urteko neska bat ekarri dute, eskuburdinak jarrita eta begiak zapi batez tapatuta. Beatriz. Nolako astakeriak ikusi ditudan berak sentitu dituen bitartean. Fusilatze-simulazioak, galdeketa intentsiboak, bakartzeak, orduak eta orduak zenbait karabinerorekin inkomunikatuta...

Berehala ikusi dut okerreko bidetik joan naizela nire azken 53 urteetan. Txotxongilo bat izan naiz boteredunen eskuetan, eta txotxongiloak nola maneiatu erakutsi diet, gainera, nire inozotasunean. Zer edo zer egin beharra nuen. Orain arteko filosofiarekin hautsi beharra nuen.

Nire agintea erabili dut. Neskatoak egindakoa bere nazioaren aurkako ez-leialtasun handiegia zela, eta neronek torturatuko nuela beste kuartel espezializatu batean. Auto ofizialean irten gara biok.

Ez gara itzuli.

### **1973ko irailaren 28a,**

*“Eska ezak hire azken desira! Azkar!”*

Zer eskatuko, eta hemen orrialde bat idazteko baimena eskatu dut. MIREko militantearekin ihes egiterakoan erabaki garrantzitsu bat hartu nuen: berak aurretik duen bizia salbatzea, nik atzetik dudana orri hauetan utziz, nire betiereko existentzia frogatuz.

Harrapatu naute, atxilotu, eta nola ez, heriotzara kondenatu.

*"EGUNEKO ZAZPIGARREN AKUSATUA:*

*John Smith kapitaina, 53 urte. Augusto Pinochet handiaren aginte hartzean eta Txileren bide-zuzentzean aholkulari izateko CIAk bidalitako agente berezia.*

*Bere eginbeharrei men eginez, Txileri berebiziko laguntza eman dion arren, duela astebate baino gehiago, 1973ko irailaren 18ko datarekin, segurtasun nazionala kolokan jarri zuen Allende kriminal arriskutsuaren alabari ihes egiten lagunduta.*

*Txileri eta Augusto Pinocheti traizioa egiteagatik, Ameriketako Estatu Batuetako segurtasun-ganberaren baimenarekin, heriotzara kondenatua!"*

*Hala ere, nire azken desira ez da nire akusazioa idazteko izan. Hori txikikeria da, epaiketa-aretoan sartzeko zain nengoela entzun dudanaren aldean.*

*"EGUNEKO SEIGARREN AKUSATUA:*

*Salvador Allende. Txileren etsairik handiena izateagatik akusatua, bere herria sozialismoaren bide ilunetik eraman nahi izan duen presidente ohia.*

*Txiletarroi iruzur egiteagatik, herriaren gainbehera ekarriko luketen aldaketak proposatzeagatik eta boterearen gehiegizko erabileragatik, beste hamaika arrazoirekin batera, heriotzara kondenatua!"*

*Pentsatzea ere azken egunotan estali diren heriotzetatik bat Allende berarena dela...*

*Inoiz zumardi handiak irekiko badira, gizaki librea haietatik pasatzeko, zumardiak, egiaz, nola itxi ziren ezagutu beharko da aurretik.*

*"Nahiko hunan, Beatriz, Txile libre batean..."*

---

Galtzaberi



**Paul San Sebastian**

**5. SAILA**

PROSA

---

## *Birraitonaren historia*

Jonek ganbarako argia piztu zuen. Bertako altzari zahar eta hautsezatuak lanpararen argi ahularekin argiztatu ziren. Jon, pauso pare bat aurrera eman eta gero, bertako gauzen artean zerbait interesgarria bilatzen hasi zen. Minutu batzuk igaro ondoren, kutxa zahar bat aurkitu zuen, bere birraitonaren kutxa zaharra, eta bertan, aitonaren gerrako uniforme, gaztetako oroigarri batzuk, argazki mordoxka bat eta, beste hainbat gauzaren artean, ezkutatu-ta, birraitonaren egunerokoa topatu zuen.

Jon, egunerokoa ikusita, poztu egin zen bere birraitonari buruz pixka bat jakin zezakeelako, aitzak ez baitzuen ezagutu eta aitonak oso txikia zelarik herritik alde egin behar izan baitzuen. Jakin-minari ezin eutsirik, mutikoa egunerokoa ireki eta irakurtzen hasi zen.

*“1931ko ekainaren 13a, astelehena.*

*Egun pare batzuk bakarrik igaro ditut etxetik kanpo eta jada sumatzen emaztearen eta semearen falta. Laborategian denak berdin jarraitzen du, judutarrei botatzeko gas toxikoekin esperimentuak egiten ari dira putaseme hauek. Oso gogorra egiten ari zait alemaniar hauen artean lan egitea. Lehenbailehen zeregina bukatu eta Errusiara bueltatzeko irrikaz nago.*

*1931ko ekainaren 14a, asteartea.*

*Vladimirrek, laborategiko beste espioi errusiar batek, mezu bat eman dit. Ostegunero-ostegunero, goizeko 03:42an, Errusiara dei bat egin behar dudala jartzen du. Laborategiko aurrerapenen berri eman behar dut. Lehenago idatzi dudan bezala, Vladimirrek eman dit mezua, baina zentzuzkoa denez, hemen lanean egoteko ez du bere benetako izena erabiltzen, nik egiten dudana bezala.*

*1931ko uztailaren 16a, osteguna.*

*Vladimirrek esan bezala, ostegunean, goizeko 03:42an dei bat egin dut. Errusiakoek lan ona egiten ari naizela eta horrela jarraitzeko esanez erantzun didate.*

*1931ko ekainaren 29a, asteazkena.*

*Ez da ezer berririk edo interesgarririk gertatu, beraz, ez idaztea erabaki dut.*

*1931ko uztailaren 13a, asteazkena.*

*Jada nazka-nazka eginda nago! Alemaniar alfer eta txoriburu hauek ezer egingo ez dutela pentsatzen hasi nazi. Lehenbailehen etxera itzuli nahi dut.*

*1931ko uztailaren 27a, osteguna.*

*Kaka zaharra, gureak egin du!!! Laborategiko zientzialari batek bonba nuklear baten planoak lortu ditu (inork nola jakin gabe) eta armadako agintari goren batek bonba eraikitzen hasteko agindua eman du! Gaur gauean, inori ezer esan gabe, mapa horiek lapurtu eta Errusiara azken deia egingo dut, zerbait gaizki irtenez gero, mapa suntsitzeko soldaduak bidal ditzaten. Nirea eta beste hainbat biztanleren biziak jokoan daude. Bonba jaurtiz gero, akabo!*

*Aukera bakarra dut”.*

Horrela bukatzen zen egunerokoa. Irakurri zuena ezin sinetsirik, Jon aitarengana joan zen iskanbila batean.

-Aita! Irakur ezazu eguneroko hau! –esan zuen Jonek bere onetik irtenda.

-Banekien momentu hau iritsiko zela... Entzun ondo, Jon –esan zuen aitak nahiko tonu serioan-. Egunerokoan jartzen duen bezala, zure birraitona nazien laborategietan espioi gisa egon zen lanean.

-Ba al zenekien?! Zer gertatu zitzaion birraitonari gau hartan?

-Birraitona, laborategiko lana bukatu ondoren, armairu batean ezkutatu zen denak logeletara joan arte. Geroxeago, planoak lapurtu eta azkeneko deia egin zuen Errusiara inguruko espioiak gertatutakoaz ohartarazteko. Baina, baiezkoa erantzun beharrean, alemanez “zureak egin du putasemea” erantzun zioten. Hori entzun bezain azkar, alarma guztiak saltatu ziren eta guardia guztiak korrika hasi ziren alde batetik bestera. Birraitona, ihesbiderik ez zuela ikusita, planoak metxeroarekin erre eta bere heriotzaren zain geratu zen; bere bizia emanez, beste askorena salbatu zuen. Hori da zure birraitonaren historia.

---

*Erprimoh*



**Haizea Saez de Egilaz Perez**

**6. SAILA**

PROSA

---

## *Panpinen bi aurpegiak*

### **2012ko apirilaren 8a**

Gaur ekingo diot bidaiari. Atzo Saharatik autobusa hartu eta Marokora joan nintzen. Egia esan, atzo hasi nintzen, bai, baina gaur merkatuan zerbait aurkitzea espero dut, Espainiarantz doan ibilgailuren bat edo... Esperantza badut behintzat.

### **2012ko apirilaren 9a**

Panpinatzat hartzen naute. Ez dakit non nagoen, nora naramaten. Kirats handia dago, hotza egiten du eta bakarrik sentitzen naiz. Zergatik hartu ote nuen erabaki hau? Lurreko gogo hura utzi eta errealitateko aldentzeko erabaki malapartatua... Lagundu, mesedez.

### **2012ko apirilaren 10a**

Bi egun besterik ez da igaro eta oraindik milaka geratzen diren arren, jada jaitsi egin nahi dut. Ez dut jarraitu nahi.

Kontinente garatua, zer izango ote da? Denek esaten dute egia bihurtutako ametsa dela, baina hobe nire begiekin ikustea. Horregatik nago hemen. Europarantz joateko bide merkeena da eta askok diotenez oso fidagarria, erraz iristen baitzara kontinentera.

### **2012ko apirilaren 11**

Gaur zurekin gogoratu naiz. Zure tayyin bat jan nahiko nuke oraintxe bertan, eta te gozoa edan. Sekulako gosea daukat baina ez daukat ezer jateko ez eta edateko ere.

Oraindik Egipton gaude, edo hori entzun diot karnioilariaren semeari. Hau oso poliki doa, hobetzea espero dut iparralderantz goazen heinean.

### **2012ko apirilaren 12a**

Eguneroko hau zuk eskatuta egin dut, ez pentsa gustuz ari naizenik, baina uste dut bere xarma harrapatzen ari naizela, gusturago idazten dut egunetik egunera. Zuretzat beharrezkoa ez den arren, nire aurkezpen txikia egingo dut. Ondoren, bidaiaren amaieran etxera bidali eta bidean galtzen bada, nora eraman jakin ahal izateko.

Ahmed naiz eta nire ama Fatimetuk bultzatuta, kamioi batera igo naiz, baina jabeek ez dakite hemen nagoenik, beraz, txintik ere ez. Hiru urtez aritu gara patera hartzeko dirua aurrezten baina behin soldaduak etorri eta dena kendu ziguten. Ez nuen beste erremediorik. Nire arreba, Mina, gaixo dago eta botikak behar ditu; lagundu egin behar diot.

### **2012ko apirilaren 17a**

Azken bost egunetan ezin izan dut idatzi. Nahiko eguraldi kaxkarra egin du, errepideak lokaztuak egon dira eta zerri-zerri egina amaitu dut. Nire altxor txiki eta bakarrak gorde ditut, gal ez daitezten. Ekialde hurbila zeharkatu dugu, Irakeko kaleko egoera tamalgarria ikusi, Turkiako ekialdearen eta mendebaldearen arteko merkatu trukea...

### **2012ko apirilaren 20a**

Polizien kontrola dago Budapesten. Arnasestuka nago. Sekulako beldurra daukat. Ez dakit oraintxe kamioitik jaitsi edo hemen geratu. Ea ez nauten harrapatzen bestela... ederra daukat. Listo. Sekulako beldurra pasatu dut. Kamioilaria eta bere semea jaitsi egin dira, goitik behera miatu dituzte. Ibilgailuko paperak begiratu, gauza pare bat esan eta segituan jarri gara marxan. A zer lasaitua!

### **2012ko apirilaren 21a**

Gaua da, oso ilun dago. Etxetik irten baino lehen esan zenidan amesteari ez uzteko, eta zeruko izar argitsuena bilatzeko. Eta halaxe egin nahi dut oraintxe. Ibilgailu madarikatuan gaua delarik, zerua ikusi nahiko nuke, sentitu, izar distiratsuak ikusi. Afrikatik ni argitzen ari den izarra, zu zeu. Ikusi nahi dut, baina zulo honetatik nahiko zaila, ezinezkoa... Orain ametsen munduan murgilduko naiz, egunen batean egia bihur daitezten...

### **2012ko apirilaren 22a**

Haien arteko elkarrizketa entzun dut. Aldi batez geratzeko asmoa dute kostaldeko herriren batean. Eta nik zer egin behar dut? Ez dakit astebete,

hiru egun edo bost izango diren, beraz, ezin naiz norabait joan eta gero etorri. Ezin naiz kabinara sartu, bat-batean etorritz gero harrapatu eta kamioitik botako naute. Azkenean hemen geratu beharko dut eta kontu handiz ibili inguruko inork ikus ez nazan.

### **2012ko apirilaren 25a**

Aaammaaaa! Zurekin egon nahi dut, zure besarkada estuak jaso, mu-xuak...

### **2012ko apirilaren 26a**

Portu baten ondoan geratu gara; Italia ematen du baina frantsesa entzuten da, beraz, mendebaldean. Sekulako mugimendua dago. Itsasontziak honantz, karga ontziak itsasoratzen, arrantza ontziak arrainez beteta portuan husten eta berehalako salmenta egiten...

Ez dakit itsasontzi horietako batean sartu ala ez. Kamioi madarikatu hau baino azkarragoa izango da seguruenik, baina beldurra ematen dit. Haren helmuga da nire kezka nagusia. Itsasontzia nora joango den jakinaraziko didan kartel baten bila nabil, baina ez dut aurkitzen. Uste dut gaur ere hau izango dela nire logela.

### **2012ko apirilaren 27a**

Nahiago nuen ibilgailua mugimenduan zegoenean. Nahiz eta deserosoago izan, banekien aurrera gindoazela, gutxiago falta zela. Eta orain ez dakit zer egin, portutik buelta bat eman, janari pixka bat lortzen saiatu... Haur batzuk ikusten ditut baloiarekin jolasten. Agian haiengana joango naiz, ez dakit.

### **2012ko apirilaren 28a**

Gaur arrebaren urtebetetzea da. Kanpamentuan ospatzen arituko dira eta pena ematen dit han egon ezinak, baina azken batean beregatik egiten ari naiz. 8 urte beteko ditu, eta nahiz eta ohean egon, badakit irribarrea ahoan duela esnatu dela. Gaurko eguna atzokoa bezalakoxea izango den arren, indarrez erantzungo dio, ziur nago.

### **2012ko apirilaren 30a**

Atzoko egun guztia ur ertzean pasatu nuen. Kamioiari begira, baina ur ertzean. Hankak freskatu eta baita aurpegia ere. Eguzki pixka bat arnastu, kostaldeko haizea sentitu. Afrikan dut begirada, han egon nahiko nuke oraintxe. Kontinente ilunean baina maitagarrienean. Bertan gauzak ikasi, bi-

zi... gezurra dirudi itsasoz bestaldean egon daitekeen mundua zenbateraino izan daiteken ezberdina. Baina egia da, errealitate hutsa da eta onartzea besterik ez dago.

Gaur lehenengo aldiz zerbait jan dut, fruta pieza bat, banana bat, portuko emakume batek emana. Eta arrantzale batek berdel bat eman dit, ez omen da saltzen. Arazoa orain nola egin izango da, baina bilatuko dut zerbait.

### **2012ko maiatzaren 1a**

Jaieguna da hemen, gauden tokian. Ezin omen dute kamioiek errepide nagusietan ibili horrelako egunetan. Bidezkoa al da? Ez dut uste, baina hori da tokatzen zaidana. Errepide korapilatsu batetik goazela nabari dut: bidegurutzeak etengabe, azpiegitura kaskarrak, bihurgune ugari... nahiko deseroso nago. Laster geratuko garela espero dut, ezin bainaiz jarrera honetan gehiago egon.

### **2012ko maiatzaren 2a**

Oso gutxi falta dela entzun dut, eskerrak. Ea nolakoa den hemengo paisaia. Itxuraz berdea ematen du, zuhaitz askorekin, aire garbia, oxigenoduna. Jaisteko gogoz nago eta hemengo esperientzia bizitzeko. Lanen bat bilatu eta Minari laguntzeko. Gogorra izan da bidaia. Hamaika une zail bizi eta gainditu behar izan ditut, bakarrik gainera. Baina neure buruaz harro nago. Adorea erakutsi dut, ausardia. Hala ere, ez nuke errepikatu nahiko.

### **2012ko maiatzaren 4a**

Balazta kolpe batekin esnatu naiz gaur. Halako batean kamioia bide bazterrean geratu da. Gidaria eta haren semea hizketan hasi dira, ozenki, gainera. Oso garbi entzun dezaket elkarrizketa.

- Aita, kamioiaren azpian norbait dago. Oraintxe ikusi dut !
- Baina nola da posible, Asier? Mesedez, ez esan txorakeriarik.
- Baietz, aita, elastiko zuria dauka eta azal iluna du. Seguru Marokoko merkatuan geundela igo zela gure ibilgailura.
- Film asko ikusi dituzu zuk, bai... –bukatu zuen aitak elkarrizketa.

Ez dute gehiago hitz egin. Hogeita bi urteko semeak sakelakoa hartu du, entzungailuak konektatu eta musika entzuten hasi da aldizkari bat irakurtzen duen bitartean. Aitak hitz eta pitz jarraitzen du, baina hark ez dio jaramonik egiten, ez du entzun nahi.



- Geldialdia egiteko 20 km falta dira. Aguantatuko al duzu pixarik egin gabe?

Ez du inolako erantzunik jaso.

- Entzungo al didazu? Nahikoa da, ez badidazu oraintxe bertan erantzuten, ez gara ilunabar arte geratuko! –errepikatu du aitak.

- Zer aita? Orain ere marmarrean?

- Amarengatik e, bestela oraintxe hemen geratuko zinateke, Andorran, errepidearen erdian. Ea 20 km-ra gelditu nahi duzun galdetu dizut, bestela aurrera jarraituko dugu, denboraz ez baikabiltza oso ongi.

- Bale ba, egin nahi duzuna.

Oso azkar goaz, erlojua aurka edukiko dute berriro ere. Lasterka ibili behar dute eskaria garaiz iristeko hartzailearen eskuetara. Joxe ez dago istilutarako, nahiko arazo baditu lehendik ere.

Ohartu direnerako 30 km egin dituzte eta zerbitzugunea pasatu dute. Sekulako oihuak entzun ditut kamioiaren aurreko zatitik. Hurrengo 82 km-ra dago, baina Asierrek ezin du gehiago, pixa egin behar du. Aitari pixa egi-tera jaitsiko dela esan dio, baina horrek ez dio utzi. Beste behin galde egin dio, baina ezezkoa berriro ere. Azkenean, kamioia gelditu eta korrika batean jaitsi da gaztea. Bitartean Joxek gauza batzuk errebisatu ditu: olioia, gurpilak, bateria, motorra... Soinu arraro bat entzun du, baina ez dio garrantzirik eman. Asier ibilgailura igotzera zihoala, panpina erori zait kamioi azpira. Ea ez duen ikusten, mesedez... baina ez, makurtzeko keinua egin du, burua sartu eta kamioiaren azpian begiratu du. Hasieran ikusi ez nauen arren, beste aldera joan eta sekulako sustoa hartu du, harrapatu egin nau!

- Aita, aita, azkar; mutiko bat dago zoru faltsuan ezkutatua.

- Baina nola da posible? –erantzun dio harriduraz aitak.

- Baietz ba, zatoz hona ! Begira hemen azpian –aita hurbiltzen den bitartean, Asierrek berriz-. Azal iluneko mutikoa da. Elastiko zuria jantzita, Bartzelona futbol taldeko galtzak eta txankletak. Ezer gehiago ez. Zauriak dauzka belauetan eta sorbaldan. Beldurtuta dago, aurpegi zurbila du.

- Zer egin behar dugu orain? Baina, baina, nondik etorri ote da hau? Noiztik dago gure ibilgailuaren azpian?

- Ez dakit, aita, baina bere herrialdera itzuli beharko genuke. Ezin dugu Tolosara eraman.

- Bai, arrazoi duzu, poliziaren eskuetan utziko dugu.

Harrapatu egin naute. Zapuztu dira nire ametsak. Eta honekin batera nire azken esaldia idaztera noa. Bidaia ederra izan ez den arren, merezi izan du saiakerak. Europara iristea lortuko banu, zoragarria izango litzateke. Baina azken unean zapuztu da dena, azken hasperenean. Sentitzen dut lortu ez izana. Sentitzen dut Mina ezin sendatu izana. Barkatu. Baina poliziaren eskuetan geratu baino nahiago dut hil. Itsasora jauzi bat egin, eta ea korronteek etxera itzultzen nauten berriro.

Kantauri isurialdeko urek Cabo Verde inguruko uretara eramango nauten esperoan.

Agur, ama; agur, Mina.

---

*Lore Gorri*



**Ilargi Aristondo Merino**

## **6. SAILA**

*PROSA*

---

### **NORABIDERIK GABE, ZU BILATU NAHIAN**

Gogoan dut egun hori, atzo bertan biziko banu bezala. Oraindik ere, egunsenti guztietan, eguzkia Aiako harritik ateratzean, zutaz gogoratzen naiz, Mikel, zure orduko argi izpi miragarriak nire azal gaztea argitu zuen egun hura.

Festa bat besterik ez zen. Beti bezala panpoxa-panpoxa ipini, eta kalera irten nintzen ilunabarrekin batera. Egun hartatik aurrera nire bizitza guztiz aldatzeaz zegoela ohartu ere egin gabe. Eta bai. Hantxe nintzen ni, Iparraldeko herri hartako gaztetxean, potea esku batean eta bestean belarrez hornitutako zigarroa nuelarik. Egunerokotasuneko ezagunekin txutxu-mutxuka nintzen bitartean, zuk begi deigarri horiekin nire gorputzeko txoko ezkutuenak miatzen zenituen, haur baten gozoki gustukoena izango banintz bezala, ni zure presentziaz ohartu ere egiten ez nintzen bitartean.

Egia esan, inozo galanta izan nintzen, herri txiki hartatik tabernaz taberna zu nire atzetik zinen bitartean, ni zu uxatzen aritu bainintzen. Eta bai. Lortu zenuen. Orduan, iluntasuna argi bihurtu zen, txantxangorriak kantuka hurbildu ziren gugana eta tripak orroka hasi zitzaizkigun, gauaren amaiera iragartzen zutelarik. Momentu hartatik aurrera, konturatu nintzen zu zinela orduak segundo bilakatzen zituena, atsekabea zoriontasun, eta malkoak al-gara.

Egun hartatik aurrera, zuk zeure bideari ekin zenion nik nirearekin jarraitu nuen modura. Eta nork ote daki zein ote zaren gaur egun? Edota noizbait, nolabait eta nonbait elkar ikusiko ote dugun? Eta halako batean topo egin ez gero, elkar ezagutuko al genuke? Dena dela, patuan sinestea besterik ez daukat, egunen batean zeure beso artean izatearen ametsa bete ahal izateko. Baina, bitartean, egunsenti orotan otoitz egiten dut, eskerrak emanez,

zu ezagutzeko aukera izateagatik. Eta, aldi berean, gauero haserretzen naiz neure buruarekin, egun hartan ihes egiten uzteagatik.

*Hogeita hamabost urte geroago...*

Zu eta ni. Ane eta Aitor. Bakarrik, pare-parean eta zu nire aurrean. Nire begi berdeek zure begi erdi itxiei begiratzen diete, nostalgiaz, egun horietan maite izanaren oroitzapenetan murgildurik. Zure begiradak niregandik paso egiten duen bitartean. Baina nik xuxurlatzen jarraitzen dizut paradisiko hitz goxoenekin, zure bareneko haurra lokartu nahian, zuk esaldi madarikatuez erantzuten didazun bitartean. Hala ere, nire azal leunez ukitzen, lasaitzen, besarkatzen zaitut, zuk zeuk plastikozko panpina gozagarri bat besterik ikusten ez duzun bitartean. Eta nik neurearekin jarraitzen dut, bihotz taupadak musika erritmoarekin batera doazen bitartean, zu desiratzten eta maitatzen. Noizbait eta nolabait, beharbada, zure modura maitatuko nauzulakoan. Eta bai. Zure aurrean nago, zure izerdi kiratsa usaintzen, arrosa ederrenen lurrina izango balitz bezala, zure sudur okerrari erreparatzen, nire perfume berriaz ohartu ere egin ez den sudur hori. Hotzikarak ditut, egunsentiko ihintzak azalean sortzen duen oilo pototaren antzekoa, zure zaplaztekoak nire aurpegi perfektuan sorturiko hotzikara, eta gustuko dut, zeurea delako behingoz bada ere, zure eskuak masailean laztan egin didalako... Ondoren, bigarren aldiz sentitu dut hotzikara bera, eta hirugarren aldiz, eta laugarren aldiz... Orduan iritsi da lehen ukabilkada, eta zure sentimendu gorrotagarriek eztanda egin dute nire bularraren kontra, baina pozik nago, niganako nolabaiteko sentimenduak dituzula nabaritu ditudalako. Behin eta birritan, zure gihar ahulen indar xumea nire kontra sumatu dut. Zure beso ederrei erreparatzen nien bitartean, buruarekin armairua jo eta zorabiatu egin naiz. Baina ederra izan da oso maite ninduzula amestea, tunel iluneko lehen argi izpiak ikusi ditudan arte. Orduan, betiko bananduko gintuztela sumatu dut.

. . . . .

Hemen nago ni. Bakarrik, bakardadean eta osorik, mundu berri honetan. Gustura. Ni naizelako nire lagun, guraso eta maitale. Inoren beharrik ez dudalako, ez zurea, Aitor, ezta Mikelena ere. Ikasi egin dut. Bai, kostata, baina lortu dut. Argi daukat ez ditudala zure mehatxuak, iseka eta irainak berriro ere pairatuko. Ez naizela zure ezbeharren arrazoi, ezta zure amorruren sortzaile ere. Ziur nago ez zarela ez gizon, ezta gizaki ere. Lehen zaplaztekoa-

rekin galdu baitzenuen pertsona izateko errespetua. Argi daukat ez zarela ez aita, ez seme, ezta biloba ere. Amaren, amonaren eta alabaren gainetik zinela sinetsi zenuen momentutik. Eta seguru nago ez zarela senar. Emaztea jo, iraindu, umildu eta zeure sexu grinen esklabo moduan erabili zenuen momentutik. Eta hala ere, eskerrik asko. Mila esker atzoko egunagatik. Zorionez, zure bultzadaren ondorioz, buruarekin armairua jo eta mundu honetara iritsi naiz. Behingoz bada ere, zu ikusi, sentitu eta entzun behar ez zaitudan paradisu honetara. Zu han, harresiz inguratuta, amorruek eta hirak azala kitzikatzen dizun bitartean, ni hemen izango naiz, zeure infernurako bidea prestatzen, indarrez kendu zenidan bizia bizitzen dudan bitartean. Eta ez pentsa gaur zure ondora itzuliko naizenik, kartzelako gela zikina txukuntzera edo neure goxotasuna eskaintzera. Izan ere, jada lortu dut nire maitasuna baztertzen ez duen hori, maite nauen hori.

Inoiz ikusi dudan gauzarik ederrena da, liluragarriena, kilikagarriena... Honen mugimendu lau eta lasaiak txoratuta nauka. Begirada baztertu ezinena nabil bi, hiru, lau, bost, sei... orduz. Amesten laguntzen dit, hitzek osatzen duten unibertso galaktikoan murgildurik nabil alde batera eta gero bestera etengabe biratzen, berarentzat izango den poesia idatzi nahian. Baina ezinezkoa da, hain dira ederrak honen kolore urdin-berdeak, hain da kitzikagarria honen haize laztana eta hain lasaia honek belarrira xuxurlatzen didan kantua... ni eta honen ametsak besterik ez ditudala nire barnean. Zoratzen hasia naiz, maitemintzen, desberdina baita eta berezia aldi berean, ohikotasunean ikusten ez dena. Mirari hau deskribaezina da. Itsasoa baita egun eta gau alboan dudan maitalerik zintzoena.

---

*Guxi*



# *Poesia*

Oiartzungo XXVI. Prosa eta Poesia lehiaketa

**2013**







**Izaro Telletxea Delgado**

**3. SAILA**

*POESIA*

---

## *Nire eskua zurean*

Isil-isilik aurkitzen naiz,  
Isil-isilik dago mundua;

Nire barruan  
Ez da ezer entzuten  
Ez txoririk,  
Ez itsasorik,  
Ez haizerik,  
Ez euririk.  
Ezta bihotz taupadarik ere.

Triste nago  
Ez nago pozik.

Triste nago  
Ezin dudalako zure bihotzaren taupadarik entzun,  
Ezin dudalako zure itsasorik eta txoririk entzun,  
Ezin dudalako zure haizerik ez euririk sentitu,  
Ez dudalako zu laztantzeko aukerarik.


Nire barrua triste dago, ez zaude.

Ez zaude.  
Non zaude?

TRISTE NAGO EZIN DUDALAKO ZURE ESKUA NIREAN SENTITU.

---

*Nire altxorra*



**Katixa Oiazabal Maisterrena**

**3. SAILA**

*POESIA*

---

## *Lainoa*

Ai!, laino polit

Beti zaude nire gorabeherekin  
Hain zara zuri, Antartida dirudizu  
Donostialde Oiazualde... Gipuzkoa osoa da zure!  
Zuhaitz bat ikusten dudanean badakit zuk eman diozula bizia  
Batzuetan gris eta besteetan gorri-laranja, baina beti zuri  
Badakit ni haserre nagoenean zu ere hala zaudela nirekin  
Baina, lasai... ez egin negarrik

---

*Tximeleta*



**Beñat Retegi Artola**

**4. SAILA**

*POESIA*

---

*Ume bahituaren irria*

Nire arimaren argia  
hegorik gabeko tximeleta da.

Nire begien distira  
itsasorik gabeko itsasontzia.

Nire azala  
harearik gabeko basamortua.

Nire behatzak  
hostorik gabeko zuhaitzak.

Nire ahoa  
urik gabeko lakua.

Nire ilea  
belarrik gabeko zelaia.

Nire gorputza  
islarik gabeko ispilua da.

Nire afizioak  
ekitaldirik gabeko antzerkiak.

Nire sentimenduak  
apurtutako kateak.

Nire abestiak  
doinurik gabekoak dira.

Nire garuna  
hustutako puxika da.

Nire oinak  
etxerik gabeko zutabeak.

Nire hezurak  
babesik gabeko arima

Nire irria  
argirik gabeko izarrak dira.

Nire bihotza  
odolik gabea.

Baina bizia aurrera doa,  
amaierarik gabeko haitzuloan

---

*Ala*



**Izar Susperregi Garmendia**

**4. SAILA**

POESIA

---

*Irribarrez, gero minez,  
eragin didazu negarra*

Gauero iluntzean,  
argiak itzaltzean,  
eta leihotik ilargia ikustean  
gogoan zaitut.

Zu, bakarra zinen.  
Triste nintzenean,  
barrea eragiten zenidan.  
Zure irribarreak  
mundua alaitzen zuen.

Benetan, mila esker.  
Baina ez zaitut ulertzen.  
Zergatik alde egin ote zenuen?  
Momentu horretan,  
nire bihotz txikiaren  
zati handi bat zinen.

Nire gurasoek esaten didate:  
Txikia zara, ez duzu ulertzen.  
Eta ni, noski,  
haserre bizian jartzen naiz.

Baina orduan konturatzen naiz  
hila zarela, ez zaitudala ikusten.  
Baina badakit nire ondoan zaudela.  
Zure presentzia sentitzen baitut.

Memento zailetan  
aurrera egiten laguntzen dit.

Nork daki, agian noizbait,  
elkartuko gara.  
Jada zazpi urte pasa dira  
zu joan zinenetik.

Zure falta sumatzen dut.  
Ez zaitut ahaztu,  
eta ez zaitut ahaztuko.  
Zure magalean egotearen  
falta sumatzen dut.

Maite zaitut.  
Ziur nago  
nire ondoan,  
zure ondoan,  
egon arren,  
noizbait berriz elkartuko garela.

---

*Rubita*



## Jokin Irastortza Zabalegi

### 5. SAILA

POESIA

---

## *Itzuliko zaren esperantzaz*

Zergatik joan zinen?  
Zergatik zoaz?  
Zergatik joango zara?  
Lehen hitz goxoeekin batera,  
lehen muxuekin batera,  
lehen laztanekin batera,  
denboraren harea-erlojua irauli zen.  
Hondar ale bat,  
beste bat.  
Bihotza zulatzen ziharduten  
labankada mingarriak.  
Berotzen zuten lehen eguzki-printzek,  
urtzen zitzaidan bihotza;  
ezkutatzen zen eguzkia,  
jartzen zitzaidan irakiten odola;  
pasatzen ziren segundoak,  
minutuak,  
orduak,  
egunak,  
asteak,  
hilabeteak,  
urteak,  
eta azken horiekin bat,  
izozten zitzaidan barrua.  
  
Urratsez urrats aldeniduz,  
laztanez laztan atzeratuz,  
begiradaz begirada ahaztuz.

Zer da maitasuna?  
Gezur bat.  
Urrundik zoragarria dirudien  
arrosa arantzaduna;  
urrundik hamalau zaporeko diruditen  
lau intxaur usteldu;  
iraungitze-data duen gutizia.

. . . . .

Harrituta utzi nauzu  
galdera hotz horiekin.  
"Noiz itzuliko zara?"  
"Noiz elkartuko gara?"  
zioen zure gutunak.  
Barkatu, beranduegi da.  
Zoritxarrez,  
gezur horretan sinetsi nuen.

Ezin joandako urarekin presarik egin,  
ezin ametsekin goserik ase,  
ezin maitasun iraungiaz gotorlekurik eraiki,  
gu bion habia.

Idatz iezadazu arren,  
malkoek gozatzea lortzen dutenean,  
malkoek, masailetik behera, atsegina ematen dutenean.  
Idatz iezadazu maitasunak guztia sendatzen duenean,  
betierekoa denean.

Ez nazazu begiradak gurutzatzeko beldurra izatera kondenatu,  
ez nazazu bizitza iluntzera kondenatu.

Erori da azken hondar alea.  
Amaitu da aurrez ezarririko epea.  
Iraungi da gu bion artekoa.

Barkatu, beranduegi da.  
Zoritxarrez,  
gezur horretan sinetsi nuen.

---

*Galtzaberi*





**Ane Lizarraga Etxeberria**

**5. SAILA**

POESIA

---

## *Desberdinak, baina berdinak*

Zer da sentitzen dudana?  
Egunero,  
iseka egiten didatenean,  
haize hotz eta mingotsak  
nire bihotz isila inguratzen du,  
tristura jasangaitza sortuz  
nire barnean.

Egunero,  
nirekin sartzen direnean,  
barre egiten didatenean,  
bakarrik sentitzen naiz  
jende multzo  
guztiaren artean.

Egunero,  
laguntza behar  
eta inork laguntzen ez nauenean,  
labankadak sentitzen ditut  
nire bularrean.

Egunero,  
eta une oro,  
jendetza horren aurrean  
txiki sentitzen naiz,  
ahul,  
nire bizitzaren kontrolik gabe,  
gauzak aldatzeko indarririk gabe.

Arratsaldero,  
etxera iristen naizenean,  
haiek sortutako oinazeak  
menperatzen nau.  
Orduan,  
begietan gordetako  
malko garratz eta saminak  
nire masailetik behera jaisten dira,  
itxi ezinezko  
iturri baten  
ur isuria balitz bezala.

Badakit  
haiek ere triste daudela,  
bakarrik sentitzen direla,  
ahulak direla,  
nik bezainbeste arazo dituztela,  
niri sufriarazteak  
boterea ematen diela  
haien barrua asetzeko.

Baina badakit,  
azken finean,  
haiek ere ez dakitela  
zer den sentitzen dutena.

Badakit,  
nahiz eta desberdinak izan,  
berdinak garela.

---

*Goibel*



**Karen Muñoz Etxebeste**

**6. SAILA**

POESIA

---

## *Testigantza beltza*

isiltasun sakonean ezkutatu dut naizena,  
ahultasuna dut gezurretan eta bihotza, infernuan.

Nahiz eta nire bihotza aske jaio zen,  
koldarra izan nintzen hura inoiz ez entzutean,  
edonork daki nolakoa den, nire bihotz ona,  
hortxe beti egon baita, mugitu gabe.

...Ezin naiz izan, izan nahi ez dudana,  
izandakoaz arnegatu bai, ordea...

Lepotik ehun metrora izan ohi dut burua,  
hila den argiko itzalean ezkutatua.  
Buruak gorputza uzten duenean,  
barruko pentsamendu hotzak hasten dira dantzan,  
koldarki eta traizioz, ustekabeen,  
Ipar-ekialdetik datozen hodei beltzak izango balira bezala.

...Ezin naiz izan, izan nahi ez dudana,  
izandakoaz arnegatu bai, ordea...

Usteltzen doan bihotz zaharra dut bularrean,  
neure buruaz beste egitera bultzatzen nauten taupadez betea.

Nire arimagabeko bihotzak erakarririk,  
taupaden erritmoan dantzan daudelarik,  
zeru goian dagoen putre zirkulua  
inoiz izan ez naizen aingeruaren arrastoa da.

...Ezin naiz izan, izan nahi ez dudana,  
izandakoaz arnegatu bai, ordea...

Heriotza, parajerik urrunetan,  
eta odola, zimeldutako zelaietan.  
Beleak datoz bisitari ni ikusteko,  
eta odol bihurtutako soroa  
kantu ilunez janzteko.  
Hor hilko naiz!

...Ezin naiz izan, izan nahi ez dudana,  
izandakoaz arnegatu bai, ordea...

Burua alde batera utzirik,  
beldur psikologikoen dihardute bizirik.  
Eromenaren sakonean dagoen zulo beltzeko nagusi naizelarik,  
nire arima ikusi nahi dut hilik.  
Aurrera zein atzera egin nahirik.  
Nik ez dut irtenbiderik!

...Ezin naiz izan, izan nahi ez dudana,  
izandakoaz arnegatu bai, ordea...

Nor naiz?  
Zer naiz?  
Zertan ari naiz?  
Izan nahi dudana ez behintzat.  
Egin nahi dudana ez behintzat.  
Nahi naizena,  
ni naiz!

---

*Arima*



**Haizea Saez de Egilaz Perez**

**6. SAILA**

*POESIA*

---

## *Ezkutuko argiak*

Atzo ez zeunden.  
Zatoz hona, nire altzora,  
goxotasunean.  
Egon zaitezen betiko.  
Errepide bazterreko farola,  
dizdizka.  
Beldurrak itsututa.  
Esnatzeko, pizteko, gogorik gabe.  
Argia bai,  
argia ez.  
Eutsi, eta heldu gogor bizitzari.  
Argitu besteen bidea,  
berpiztu ametsak.  
Jaiotzear dagoen lore gorria.  
Udaberriko lehen eguzki izpiekin  
gogotsu,  
atera nahi du.  
Mundua agurtu,  
koloreztatu.  
Bizikletan ikasten ari den neskatoa.  
Etsi gabe.  
Erori, altxa.  
Ubeldurek ez dute axola,  
Ezta urratuek ere.  
Lortuko du.  
Zergatik ez duzu zuk gauza bera egiten?  
Zergatik ez zara saiatzen?

Irten zure oskoletik,  
apurtu preso zauzkatzen kate sendoak.  
Zirrikitutik sartzen den argiari segi,  
harrapatu.

Irakurtzen ikasten ari den mutikoa.  
Nahiko lan letrak bereizten,  
intonazio egokia ematen.  
Baina badoa aurrera,  
hitzak irakurriz esaldiak lortzen.  
Eta hauek elkartuz paragrafo  
sendo, mamitsuak irakurtzen.  
Eta horrela...

Teilatutik jaitsi nahi duen katua.  
Kementsu begiratzen die ondoko etxeko teilei,  
baina beldurrez lurrera;  
begirada zorrotzez.  
Bat,  
bi,  
eta, eta, eta...  
Ezin du salto egin.  
Nahi du.

Gaur argiak piztuta topatu ditut,  
farola indarrez,  
lorea guztiz kanpoan,  
neskatila bizikletan,  
mutila nobela irakurtzen,  
katua zelaian lasai.

Ez dakit nor izan den,  
agian zu,  
baina eskertzen dut, gaurkoan ere  
iluntasuna argitu izana.

Eguneroko erronkei aurre egiteko  
indarra,  
adorea, eman izana.

Esnatu, begiak ireki eta  
gaur ere alboan zaitudala sentitzea.  
Hemen, nirekin.



Antolatzailea:  
Euskara Batzordea



OIARTZUNGO  
UDALA

